# 2023 PROIEKTUAK



FASFI

FUNDACIÓN AYUDA SOLIDARIA HIJAS DE JESÚS

## JESUSEN ALABEN LAGUNTZA SOLIDARIO FUNDAZIOA

2003-2023

FASFIk 20 urte bete ditu itxaropenez elikatutako bateriekin. Horrela, munduan zehar lankidetza-proiektuak bultzatzen jarraitzen dugu. 2023 honetan, FASFI familiari esker,

# 20 PROIEKTU
# 9 HERRIALDETAN

**bultzatu nahi ditugu**




Europa
Espainia
Asia
Bangladesh
Latinoamerika
Bolivia, Kuba,
Dominikar Errepublika,
Peru (Amazonia),
Venezuela
Afrika
Malawi,
Mozambike

# BANGLADESH

## Utrail

### 1 Santa Cándida barnetegian ikasketa gela bat eraiki

Santa Cándida emakumezkoen barnetegian bizi diren Garo tribuko ikasleen hezkuntza-baldintzak hobetzea, ikasketa-gela bat eraikiz, haur eta nerabeen ikaskuntza, errendimendua eta hezkuntza-emaitza hobeak lortzeko.



**Aurrekontua:**

**22.000 euro**











# BOLIVIA

## Buen Retiro

### 2 Bigarren Hezkuntza landa-inguruneetan bultzatu

Buen Retiroko Jesusen Alaben barnetegi mistoan dauden 80 nerabek bigarren hezkuntzarako duten eskubidea bermatzea, emakumeek eta gizonek hezkuntzarako aukera-berdintasuna, eskola-uztea murriztea eta gaitasunak garatzea bermatuz.

**Aurrekontua:**

**10.500 euro**

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA



# BOLIVIA

## Potosí

## 3 Jolasean partekatzeko eta hazteko alaitasuna

Asteburuetan aisialdirako lekuak eman nahi zaizkie Barrio Lindoko haurrei, jolaserako jarduerak eta gizarte- eta hezkuntza-tailerrak eginez. Gainera, askariak banatuz, elikadura egokia izan dezaten lagundu nahi da.





**Aurrekontua:**

**2.600 euro**





# BOLIVIA

## Potosí

### 4 Bizitza ehuntzen duten emakumeak

Emakume nekazari taldeari bere hazkunde integralean eta eurenganako estimua eraikitzen laguntzea, ekoizpen-trebetasunak (lantegiak, artisau-produktuak egitea) eta gaitasun soziokulturalak (prestakuntza, alfabetatze-ziurtagiria) garatuz.

**Aurrekontua:**

**5.600 euro**









# BOLIVIA

## Santa Cruz, Montero

5 **Ikasketa bekak**

Hezkuntzarako sarbidea sustatzea eta egoera ahulean dauden Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen eskola-uztea saihestu nahi da. Beken bitartez, eskola-, elikadura-, osasun- eta garraio-gastuak ordaintzeko.



**Aurrekontua:**

**6.200 euro**

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA





# KUBA

## Bayamo

### 6 Bi hezkuntza-proiekturi laguntzea

Pertsonen garapen integralean laguntzea, bi hezkuntza-proiekturen bidez: Nazaret Proiektua, ikasteko zailtasunak dituzten periferiako adingabeei laguntzen diena, eta CFP Baptista, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei eta gazte-helduei ere laguntzen diena, beren lanbidean birziklatzea edo bide berriak irekitzea bilatzen baitute.

**Aurrekontua:**

**10.000 euro**

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA



# ESPAINIA

## Almería

## 7 Elkarrekin egiten dugu bidea

Almeriako probintzian bazterketa-arriskuan dauden etorkinak (gehienak afrikarrak) hartzea, orientatzea, prestatzea eta gizarteratzea. Hori guztia entzute aktiboaren, aldi baterako harreraren eta harreman pertsonala zein pertsonen artekoak errazten dituzten jardueren bitartez lortu nahi da. Nakani elkartearekin lankidetzan egindako proiektua da.





**Aurrekontua:**

**13.000 euro**

10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA



# ESPAINIA

## Almería

8 **Eskolako jantokia**

Virgen de la Paz ikastetxeko ikasleei hezkuntza-zerbitzua ematea, familia-bizitza antolatzen laguntzeaz gain, elikadura-ohitura osasungarriak sustatu eta garatzeko eta eskola-absentismoa gutxitzeko.

**Aurrekontua:**

**12.000 euro**









# ESPAINIA

## Lleida

### 9 Etorkinentzako etxebizitza solidarioa

Alcarrasen etorkinei aldi baterako harrera egitea, orientazioa, aholkularitza eta informazioa emanez, autonomia pertsonalik handiena lortzeko eta gizartean integratzeko, beren bizitzako proiektu pertsonalak sustatuz. Proiektua Caritasekin lankidetzan.



**Aurrekontua:**

**7.200 euro**

10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA





# ESPAINIA

## Lleida

10 **Harrera, integrazio eta laguntza gela**

Ahulezia- eta esklusio-egoeran dauden haurrei eskola-laguntza ematea, eta hezkuntza-prozesuetan laguntzea.

**Aurrekontua:**

**1.500 euro**









# ESPAINIA
## Lleida

### 11 Komunikazioa eta integrazioa

Etorkin komunitateko kideei gaztelaniaren eta katalanaren ikasketa prozesuan lagundu. Komunikazio eraginkorra izan eta lan-mundura sarbidea zein integrazio soziokulturala erraztea du helburu.





**Aurrekontua:**

**2.000 euro**

10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA



# MALAWI

## Mtendere

### 12 Ura guztiontzat

Edateko ura duten iturrietara irisgarritasuna hobetu nahi da Kaudanchulu inguru herritarren artean. Osasun eskaseko ura duten iturrien ordez, putzu bat jarri nahi da eta ur kaltegarria edatearen ondorioz gaixotzen diren pertsonen kopurua murriztu.

## Aurrekontua:

**4.500 euro**









# MOZAMBIKE

## Metoro

### 13 Osasuna zainduz

Metoron, medikuntza naturaleko zentrora doazen gaixoen arreta bermatzea. Era berean, komunitate horietako pertsonei prestakuntza ematea gaixotasunen prebentzioan eta bertako sendabelarren erabileran.





**Aurrekontua:**

**4.500 euro**





# MOZAMBIKE

## Metoro

### 14 Ikasi nahi dut, beste etorkizun bat nahi dut!

Metoroko Eskola Komunitarioko ikasleen eskolatzea eta ikasketa-prozesuak hobetzea ahalbidetzea, matrikularako, uniformeetarako eta eskolako materialerako bekak emanez; errefortzu-gelak garatzea eta liburutegia dinamizatzea.

**Aurrekontua:**

**5.300 euro**

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA



# PERU

## Amazonia

## 15 "Peke peke"-n eskolara!

Motor eta erregaiez hornituriko ontzi instituzional bat bermatzea, Nuimiat Achuar Warush hezkuntza-erakundeko gazte, misiolari eta irakasleen sarbidea, egonaldia eta ikasketak burutzeko.





**Aurrekontua:**
**9.000 euro**





# DOMINIKAR ERREPUBLIKA

## Elias Piñako "El Valle" komunitatea

### 16 Maisu-maistren garraioa

Elias Piñako "El Valle" komunitatean dagoen instituzionaltasuna indartzea. Halaber, bertoko irakasle eta bideratzaileen garraioa bermatu.

**Aurrekontua:**

**5.000 euro**

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA



# DOMINIKAR ERREPUBLIKA

## Elias Piñako "El Valle" komunitatea

### 17 Elikadurak garrantzia du

Bertoko amak eta nerabeak honako gai hauetan trebatu nahi dira: gaixotasunen prebentzioan (horiek saihesteko helburuarekin), eta haurren eta senideen garapen fisiko, psikosozial eta emozionalean. Halaber, haurtzaroan ematen diren nutrizio-arazo nagusietan esku-hartu nahi da, horrela, horien garapenean laguntzeko .



**Aurrekontua:**

**20.000 euro**

2 GOSERIK EZ

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA





# DOMINIKAR ERREPUBLIKA

## Elias Piñako "El Valle" komunitatea

### 18 Eskola hazten ari da

Kalitatezko eskola baten eraikitze-lanak bukatzea, Elias Piñako "El Valle" eta "La Trompeta" komunitateetako haur, nerabe eta gazte guztiek hezkuntza duina izan dezaten maila guztietan.

**Aurrekontua:**
**10.000 euro**

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA



# DOMINIKAR ERREPUBLIKA

## Santo Domingoko auzoak

### 19 Ahulezia egoeran dauden familientzat prestakuntza eta laguntza

La Ciénaga, Guachupita, Los Mina, La Yaguita, Licey al Medio eta Santo Domingoko eta Santiagoko beste eremu pobretu batzuetan bizi diren familien giza-eskubideak eta osasun fisiko zein emozionala babestea. Bizitza duinagoa izan dezaten bertoko amak trebatu, eta adin txikikoek dituzten elikadura-arazoetan esku-hartu.





## Aurrekontua:

**12.000 euro**

10 DESBERDINTASUNA MURRIZTEA




# VENEZUELA

## Villa del Rosario

### 20 Familientzako eta migratzaileentzako prestakuntza integrala

Familiak osoki prestatzea honako arlo hauetan: osasuna, nutrizioa, herritartasuna, hezkuntza, lidergoa, ekimena, produktibitatea.

## Aurrekontua:

## 10.000 euro



10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA



# MILA ESKER ZURE LAGUNTZAGATIK

**Kontuak: ES9220950001109121199109**
**ES58-0075-0124-11-0701424270**
**Bizum: "donar" edo "eman" eta sartu gure kodea 00735**


C/ Bravo Murillo nº 333, 2ºB - 28020 Madrid

Email: info@fasfi.org
Tels. 914 490 943 - 669 796 128
www.fasfi.org


## JESUSEN ALABEN LAGUNTZA SOLIDARIO FUNDAZIOA, FASFI